

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

257/2018 Foru Agindua, ekainaren 6koa, zeinak aldatu egiten baitu 43/2017 Foru Agindua, otsailaren 1ekoa, zeinaren bidez onetsi baitzen Arabako lurralde historikoko arrantza kontinentalaren aprobetxamendua arautzen duen araudia 2017-2018 denboraldirako, hartara 2018-2019 kanpainan zehar aplikatzeko

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Herriaren autonomia estatuarenak, bere 10.10 artikuluan xedatzen duenez "Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du honako gai hauetan: ... 10. Barne-uretako arrantza, itsaski-bilketa eta arrain-hazkuntza, ehiza eta ibai eta aintziretako arrantza."

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, autonomia erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoko foru organoen arteko harremanenak, bere 7.b artikuluan xedatzen duenez "Lurralde Historikoei dagokie erakunde erkideetatik datozen arauak garatzea eta betearaztea arlo hauetan: ... 3. Arrantza kontinentalaren eta ehizaren aprobetxamenduaren araubidea"

Eusko Jaurlaritzaren 34/1985 Dekretuaren eta Arabako Foru Aldundiaren 884/1985 Dekretuaren bidez (biak martxoaren 5ekoak), Arabako Foru Aldundiari eskumena eman zitzaion ibaietako arrantza arloa araubidez garatzeko.

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, natura ondare eta biodibertsitatearenak, zeina oinarritzkoa baita haren 1. artikuluan eta bigarren azken xedapenaren arabera, hau ezartzen du 65. artikuluan:

1. Ehizatu eta ur kontinentaletan arrantzatu ahal izango diren espezieak autonomia-erkidegoek zehazten dituztenak bakarrik izango dira, eta deklarazio horrek inola ere ezingo die eragin Babes Bereziko Espezieen Zerrendan sartutako espezieei edo Europar Batasunak debekatutakoei.

2. Nolanahi ere, ehiza eta arrantza kontinentala arautzean, bermatu egingo da jarduera horietarako baimenduta dauden espezieak kontserbatzea eta sustatzea; xede horietarako, autonomia-erkidegoek zehaztu egingo dute zein lursail eta uretan ehizatu eta arrantzatu ahal izango den eta zein egunetan izango den haizu espezie bakoitzarentzat.

Lurralde historikoei dagokienez, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko legearen testu bategina onesten duenak, bere 66. artikuluan xedatzen duenez, "foru-organo eskudunek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean natura-baliabideen antolamenduan eta naturaren kontserbazioan eskumena duen sailarekin elkar hartuta, bakoitzak bere lurralde-eremurako, arrantza-aprobetxamenduen araudia onartuko dute urtero. Jarduera horiek egin daitezkeen urak ezarriko dituzte, bai eta espezie bakoitzarentzako arrantza-garaia eta ur kontinentaletan arrantzatzeko modu eta metodoak ere". Arrantza kontinentalaren aprobetxamendua arautzen duen araudiak ezarritako urtean urteko foru agindua da araugintza baliabide nagusia arrain espezieen aprobetxamendu antolatua egiteko.

Bestalde, otsailaren 9ko Diputatuen Kontseiluaren 14/2016 Foru Dekretuak, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzekoak, abuztuaren 3ko Gobernu Kontseiluaren 45/2017 Foru Dekretuak aldatu duena, Mendi Zerbitzuei esleitzen dizkio besteak beste, honako eginkizun hauek: baso flora eta fauna antolatzea, kontserbatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta, Ehiza eta Arrantza Atalaren bidez, ehizarako eta arrantzarako debekualdiei buruzko agindu orokorrak eta Sailaren eskumeneko gaietako buruzko araudi osagarria aztertzea eta proposatzea.

Aurrekoa oinarri hartuta, Nekazaritza Sailak, dagokion urteko Foru Aginduaren bidez, Araban arrantza kontinentalara arautzeko araudia ezartzen du; azkena otsailaren 1eko 43/2017 Foru Agindua izan zen, 2017-2018 kanpainarako Arabako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamenduak arautzeko araudia onartu baitzuen.

2017ko abenduaren 15ean, Arrantzako Lurralde Batzordea bildu zen, jarduera horretarako araudi aplikagarria adosteko Arabako Lurralde Historikorako, 2018-2019 aldirako, eta araudia aurreko denboraldikoaren oso antzekoa da, eta aldaketak ez dira oinarritzkoak.

Aldaketa horiek, batik bat, 2018-2019 aldirako denboraldia, ordutegia eta egutegia egokitzea eta arrantza baimenen prezioak eguneratzea izan da, abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak, 2018. urterako Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu betearazpenarenarenak, bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren babesean, eta beste zenbait alderdi zehatzago batzuk zehaztea, araudia denboraldi horretan hobeto aplikatzeko, besteak beste: hobeto zehaztea 14. artikuluan ezarritako arrantza debekuen tarteak, bai eta 20. artikuluan arabera zebra muskuiluarekin lotutako neurri bereziak aplikatzeko lekuak ere, II. eranskinean ezarritako arrantza tarteak zehaztea, bai eta Berron/Ega ibaian karramarro seinaleduna hartzeko luzera eta baimen kopurua zehaztea ere, IV. eranskinaren arabera.

Kontuan hartuta arrantza kontinentalari kirol jarduera dela eta izaera askotako jende askok egiten duela eta, sarritan, denboraldi bakoitzean ALHAOn argitaratzen den aginduaren testua erabiltzen dutela aplikagarri den araudia ezagutzeko, egokiago irizten da osorik batzea 2018-2019 denboraldian arrantza arautuko duen aginduaren testu osoa, baita denboraldi honetan aplikagarri diren aldaketak ere, errakuntzak eta hutsak ekar ditzakeen horietako bakoitza banaka idaztea baino; horrela, testua errazago irakurriko da eta hobeto ulertuko da eta osotasunean interpretatu ahalko da.

Foru agindu hau izapidetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, jasotako araupetze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 3. artikuluan jasota baitaude. Foru dekretu horrek hauexek onesten ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako jarraibideak. Horiek horrela, aurrekarietan nahikoa justifikatu da premia dagoela Arabako arrantza kontinentalari beste era batera arautzeko; gainera, arauketa jardun neurritsua izango litzateke, beharrezko gutxienez mugatzen delako lortu nahi den helburua lortzeko; hain zuzen ere, Arabako Lurralde Historikoan 2018 kanpainarako arrantza arautzen duen araudiaren ikuspegi artikulatua, bakarra, osatua eta eguneratua.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteaturiko arauketak, daukan izaeragatik, ez du eragiten administrazio zama osagarririk eta beharrezkoak ez direnik administratuentzat, ezta baliabide publiko gehiago kontsumitzea ere. Gainera, gardentasun printzipioa bermatu da, arau xedapena egiterakoan entzunaldiko eta jendaurreko informazioko izapidea bete baita, eta agindu da betiere ALHAOn argitaratu dadila onespina eman bezain laster.

Arabako Foru Administrazioaren Kontsulta Batzordeak, 2018ko maiatzaren 28ko bilkuran, emandako irizpena kontuan izanik eta haren ondorioak onartuz.

Arrantzako Lurralde Batzordea entzun da, aginduzko txostenak aztertu dira; horregatik eta

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea otsailaren 1eko 43/2017 Foru Agindua, Arabako Lurralde Historikoan 2017-2018 aldirako arrantza kontinentalaren aprobetxamendua arautzen duen araudia onartzeko, eta denboraldi berriko eskakizunetara egokitzea eta 2017ko abenduaren 15ean eginitako Arrantzako Lurralde Kontseiluan adostutakora egokitzea, 2019-2020 kanpainan aplikatzeko. Testu osoa, aipatu diren aldaketak barne, eranskin gisa erantsiko zaio foru agindu horri.

Bigarrena. Foru agindu hau indarrean sartuko da ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera, eta, ondorioz, indargabetu egingo da 117/2018 Foru Agindua, 2018/2019 denboraldirako luzapena onartzen duena, Arabako Lurralde Historikoan 2017-2018 denboraldirako arrantza kontinentalaren aprobetxamendua arautzen duen araudia, otsailaren 1eko 43/2017 Foru Aginduaren bidez, hura indarrean sartu arte.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 6a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN, 2018/2019 DENBORALDIAN, KIROL ARRANTZAREN TRESNAREN BIDEZ UR KONTINENTALETAN ARRANTZA KONTINENTALAREN APROBETXAMENDUA ETA ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILE ZEHATZ BATZUEN KONTROLA ARAUTUKO DUEN ARAUDIAREN TESTU OSOA

1. ARTIKULUA. ARRANTZATU DAITEZKEEN ESPEZIEAK.

1.1. Ondoko hauek dira arrantzatu daitezkeen espezieak:

Amuarrain arrunta (*Salmo trutta*).

Barbo arrunta (*Luciobarbus graellsii*).

Loina (*Parachondrostoma miegii*).

Tenka (*Tinca tinca*).

Ezkailua edo txipa (*Phoxinus phoxinus*).

Urre-arraina (*Carassius auratus*).

1.2. Foru Agindu honetako 1.1 eta 2.1 artikuluetan jasota ez dauden espezieak ezingo dira arrantzatu Arabako Lurralde Historikoan.

1.3. Arrantzatu ezin daitezkeen espezieren bat ustekabean harrapatzen bada, era honetan jokatu beharko da:

a) Espezie autoktonoa bada, uretara itzuliko da berehala, hura askatzean ahalik eta kalte txikiena eginez.

b) 630/2013 Errege Dekretuan jasotako espezie exotiko inbaditzailea bada, debekatuta dago uretara itzultzea eta Foru Agindu honetako 6. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da.

2. ARTIKULUA. ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN KUDEAKETA, KONTROLA ETA DEUSEZTATZEA.

2.1. Adierazten da arrantza espezie exotiko inbaditzaile bezala katalogatutako arrain eta oskoldun espezieak kontrolatu, kudeatu eta deuseztatzeko bide izango dela baldin eta espezie horiek 639/2013 Errege Dekretuan jasota badaude eta 42/2007 Legea indarrean jarri baino lehenago sartuak badira. Hura hartzeko, Agindu honetan jasotako xedapenei jarraituko zaie (6. artikulua). Espezie horiek ondoren zerrendatzen dira:

Amuarrain ostadarra (*Oncorhynchus mykiss*).

Alburnoa (*Alburnus alburnus*).

Perka amerikarra (*Micropterus salmoides*).

Karpa (*Cyprinus carpio*).

Lutxoa (*Esox lucius*).

Karramarro seinaleduna (*Pacifastacus leniusculus*).

Karramarro gorria (*Procambarus clarkii*).

2.2 Euskal Herrian legez arrantzan egiteko nahitaezko agiriak (foru agindu honetako 9. artikulua) dituen edonork espezie horien gaineko kontrol jardunak egin ahal izango ditu, foru agindu honetan ezartzen diren denbora eta leku mugetara, prozedura, metodo, beita eta apeuetara moldatuz.

2.3 Espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatu, kudeatu eta deuseztatzeko kanpaina espezi-fikoen esparruan, Nekazaritza Sailak baimena eman dezake debekatutako edo mugatutako prozedura edo bideak zenbait ur masatan erabiltzeko.

3. ARTIKULUA. ALDI, EGUN ETA ORDU BALIODUNAK.

3.1 Arrantza aldi baliodunak.

Oro har, 2018/2019 denboraldian salmonidoak harrapatzeko aldi balioduna, bai ur libreetan bai erregimen bereziko uretan, 2018ko martxoaren 18tik ekainaren 30era artekoa izango da, bi egun horiek barne, amuarrainak hil gabe harrapatzeko Kuartangoko arrantza esparruan izan ezik. Esparru horretan, aldi balioduna 2018ko apirilaren 14tik ekainaren 13ra artekoa izango da, biak barne.

Ibai zati libreetan ziprinidoak harrapatzeko aldi balioduna 2018ko martxoaren 18tik hasi eta 2019/20 arrantza denboraldiaren hasierara artekoa izango da.

Arrain exotiko inbaditzaileak kontrolatu eta deuseztatzeko ezarri diren ibai zatietan (Arabako arrantza baimenduko ibai zatiei buruzko II. eranskinean jasoak), aldi balioduna haiekin gainjartzen diren salmonido edo ziprinido arrantzarako ibai zatietako berbera izango da.

Karramarro seinaleduna eta karramarro gorria harrapatzeko aldi balioduna, foru agindu honen IV. eranskinean haiek kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatietarako zehazten dena izango da.

3.2 Egun baliodunak.

Oro har, eta espezie talde bakoitzaren arrantza denboraldiaren barruan, asteko egun guztietan egin ahal izango da arrantzan, jaiegunak ez diren astearteetan eta ostegunetan izan ezik. Salbuespenak honako hauek dira:

a) Amuarrain arrantzako esparruetan, arrantzan egin daiteke foru agindu honen III. eranskinean esparru bakoitzerako zehazten diren egunetan. Salbuespen gisa, beste arrantza egun batzuk zehaztu ahal izango dira esparru bakoitzerako zehaztutako epearen barruan, arrantza lehiaketa ofizialak egiteko helburuz.

b) Ziprinidoen arrantza, ibai zati libreetan arrantzarako aldi balioduneko egun guztietan egin ahal izango da.

c) Arrain exotiko inbaditzaileak kontrolatu eta deuseztatzeko ezarri diren ibai zatietan (foru agindu honen II. eranskina), beraiekin gainjartzen diren salmonido edo ziprinido arrantzarako ibai zatietan arrantzan egin daitekeen egun beretan harrapa daitezke espezie horiek.

d) Karramarroa kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatietan, egun baliodunak foru agindu honen IV. eranskinean ibai zati bakoitzerako zehazten direnak izango dira.

3.3 Ordu baliiodunak.

Eguzkia irten eta sartu artekoak dira arrantza ordu baliiodunak, Institutu Geografiko Nazionalaren egunsenti eta iluntze almanaka ofizialetik hartuak (<http://www.fomento.gob.es/salidapuestasol/2018/Vitoria-2018.txt> eta <http://www.fomento.gob.es/salidapuestasol/2019/Vitoria-2019.txt>).

Karramarroak kontrolatu eta deuseztatzeko ordu baliiodunak hauek izango dira:

a) Uztail eta abuztuan: 13:00etatik 21:00etara.

b) Iraila 13:00etatik 20:00etara.

4. ARTIKULUA. HARRAPAKETAK ETA KOPURUAK.

4.1 Salmonidoen arrantzarako ibai zati libreetan, salmonidoak "heriotza gabeko" modalitatean baino ezingo dira arrantzatu; hortaz, atzera uretara botako dira berehalaxe haietan harrapatzen diren amuarrain arrunt guztiak, askatzean ahalik eta kalte txikiena eginez.

4.2 Ziprinidoak harrapatzeko ibai zati libreetan, "heriotza gabeko" arrantzan egiten ari baldin bada, atzera uretara botako dira berehalaxe haietan harrapatzen diren amuarrain arrunt guztiak, askatzean ahalik eta kalte txikiena eginez.

4.3 Arrantza esparruetan oro har amuarrain arrunta (*Salmo trutta*) espezieko zenbat ale hilaraz daitezkeen gehienez, honako inguruabar hauen arabera ezarriko da:

a) Gehienez ere bi amuarrain arrunt (*Salmo trutta*) hilaraz daitezke baimen bakoitzeko. Kopuru horretara iritsitakoan arrantzan egiteari utzi beharko zaio.

b) Harrapatutako aleak aukeratzea galarazteko asmoz, legezko luzera duen amuarrain bat harrapatu ondoren ezin izango da berriz uretara bota, egun guztian egiten ari den arrantza modalitate bakarra heriotza gabeko arrantza izan ezean.

4.4 Hilarazitako amuarrain arrunt eta karramarroak saskian, zakuan, poltsan... eraman beharko ditu arrantzaleak, eta ezin izango ditu ibilgailuan sartu arrantza eguna bukatu arte.

4.5 Foru agindu honetako 1.1 eta 2.1 artikuluen arabera arrantzatu daitezkeen gainerako arrain eta karramarro espezieetarako ez da harrapaketa kopururik ezartzen.

5. ARTIKULUA. NEURRIAK.

5.1 Arrantzatu daitezkeen espezieen gutxieneko neurriak ondoko hauek dira:

– Amuarrain arrunta (*Salmo trutta*): 22 cm.

– Barbo arrunta (*Luciobarbus graellsii*): 18 cm.

– Tenka (*Tinca tinca*): 15 cm.

– Ezkailua edo txipa (*Phoxinus phoxinus*): 6 cm.

– Loina (*Parachondrostoma miegii*): 8 cm.

– Urre-arraina (*Carassius auratus*): ez da gutxieneko neurririk ezartzen.

5.2 Amuarrain arrunta (*Salmo trutta*) gehienez ere 35 cm luze izan beharko da. Gainerako espezieentzat, ez da ezartzen gehieneko luzerarik.

5.3 Arrainaren luzera furkala hartuko da kontuan, hau da, buruaren aurreko muturretik isats hegatsaren edo isats hedatuaren erdi puntura neurtutako luzera.

5.4 Uretatik atera eta berehala botako dira bertara, ahalik eta kalte txikiena eginez, aurretik ezarritakoak baino luzera txikiagoa edo handiagoa duten ale guztiak.

5.5 Ez da ezartzen gutxieneko edo gehieneko neurririk 630/2013 Errege Dekretuak barnean hartu eta foru agindu honetako 2.1 artikuluan jasotzen diren espezie exotiko inbaditzaileentzat.

6. ARTIKULUA. ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN ESPAINIAKO KATALOGOA ARAUTZEN DUEN 630/2013 ERREGE DEKRETUAREKIN LOTURIKO BERARIAZKO NEURRIAK.

6.1 Ibaietako arrantzaren gaineko eskumenen barruan, Arabako Foru Aldundiak dio espezie exotiko inbaditzaileak kaltegarriak direla bere uretan, eta, ondorioz, nahitaezkoa da halabeharrez edo kirol arrantzaren bidez har daitezkeen espezie honetako ale guztiak sakrifikatzea Hori dela eta, debekatzen da heriotza gabeko arrantzan aritzea espezie exotiko inbaditzaileekin.

6.2 630/2013 Errege Dekretuko 7.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, espezie exotiko inbaditzaile bezala katalogatuta daudenak (foru agindu honen I. eranskina) izaditik ateratzen badira, edozein prozedura dela bide, ezingo dira natura ingurunera itzuli, ikerkuntzako edo pertsonen osasun edo segurtasuneko arrazoiengatik salbu, eta betiere eskumena duen administrazioak aurretiaz baimena emanda.

6.3 2.1. artikuluan adierazten diren espezie exotiko inbaditzaileen kontrola eta deuseztapena, horietako bakoitzarentzat zehaztutako eremuetan bakarrik egingo dira (foru agindu honen II. eranskina). Espezie horietarako ez da ezartzen gutxieneko neurririk ez harrapaketa kopururik, eta harrapatu eta berehala hilarazi beharko dira. Hala ere, baimentzen da espezie horien ale hilak edukitzea eta garraiatzea, dela autokontsumorako, dela haiek natura ingurunetik desagerrarazteko toki apropos batean uzteko

6.4 Foru agindu honen 2.1 artikuluan jasotzen ez diren espezie exotiko inbaditzaileen aleak edozein prozeduraz harrapatzekotan, osasun publikoko arrazoiengatik, espezie horien ale hilak harrapatu diren lekutik hurbilen dagoen hondakin organikoaren edukiontzian utzi beharko dira, natura ingurunetik desagerrarazteko.

6.5 Amuarrain arrantzako esparruetan, espezie exotiko inbaditzaile baten aleren bat harrapatzen bada, nahitaezkoa izango da egitate hori adieraztea horretarako gaitutako orrian. Harrapatutako aleak hilarazi beharko dira eta, espeziea arrantzatu daitekeen ala ez, foru agindu honen 6.3. edo 6.4. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da.

6.6 Harrapa daitezkeen ibai karramarroaren espezieak, harrapatu ondoren, ez dira sekula uretara itzuliko. Harrapaketa lekutik alde egin baino lehen hil beharko dira, eta betiere beste edozein zonatarra joan aurretik, baita ibai berean bada ere. Harrapatutako aleak uretatik kanpo edukitze hutsarekin ez da ulertuko karramarroak hil direnik.

6.7 Arabako Lurralde Historikoan egiten diren arrantza txapelketa guztietan, foru agindu honen I. eranskinean jasotzen diren arrain espezieen aleak harrapatzen direnean, nahitaezkoa izango da ale horiek hilaraztea, txapelketa heriotza gabeko arrantza modalitatekoa bada ere.

7. ARTIKULUA. ARRANTZA TRESNAK ETA ELEMENTU LAGUNGARRIAK.

7.1 Arrainak harrapatzeko arrantza tresnak:

- a) Kanabera da arrainak harrapatzeko baimendutako arrantza tresna bakarra.
- b) Orokorrean, lurralde historikoko ibai eta uretan kanabera bakar bat onartzen da arrantzale bakoitzeko.
- c) Albina, Maroño, Sobrón, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan, baita ziprinidoen arrantzarako ibai zati libreetan ere, arrantzale bakoitzak bi kanabera erabil ditzake, baina biak haren eskueran egon beharko dira.
- d) Sobrón, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan ontzitik arrantzan egitean, arrantzale bakoitzak kanabera bat erabil dezake, eta ontzi bakoitzean gehienez ere bi kanabera erabil daitezke.

7.2 Karramarro seinalekunak eta karramarro gorriak harrapatzeko tresnak:

- a) Espezie horiek harrapatzeko arrantza tresna bakarra dago baimenduta: 30 zentimetroko diametroko sare-saskia, gehienez bi eraztun dituena, eta itxeko inolako gailurik gabea.

b) Gehienez ere bost sare-saski baimentzen dira arrantzale eta baimen bakoitzeko. Sare-saskiak ipintzeko, goitik jota ibaiertzaren 30 metro har daitezke beste arrantzale batzuk hurbil egon eta beraien artean adostasunik ez badago beren sare-saskiak tartekatzeko.

c) Salabardoak behar bezala identifikatuta egongo dira, baimenaren titularraren izen-abizenekin.

d) Agintari eskudunak konfiskatu egingo ditu identifikaziorik gabeko salabardoak.

7.3 Elementu lagungarriak.

a) Orokorrean, salabardo izeneko tresna erabili ahal izango da, baina bakar-bakarrik kanaberarekin harrapatutako arrainak uretatik ateratzeko lagungarri moduan.

b) Zebra muskuiluaren presentzia nabaritu den ur masetan (foru agindu honen 20.1. artikuluan ematen da horien zerrenda) debekatuta dago elementu lagungarriak erabiltzea; salbuespen gisa, Sobrón, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan arrantzako "grip" delakoa erabili daiteke, 20.2.b artikuluan zehazten denaren arabera.

8. ARTIKULUA. BEITAK ETA AMUAK.

8.1 Arabako Lurralde Historikoan amuarrainaren arrantzarako esparruetan, berdin du zein motatako arrantza egiten ari den, eta salmonidoen arrantzarako ibai zati libreetan, onartutako beita bakarrak heriotza gabeko beita artifizialak dira, edozein mota edo muntaiatakoak, baldin eta amu bakar bat eduki eta horrek "garranga" izeneko zatirik ez badauka.

8.2 Ontzitik arrantzan egiteko modalitatean, zeina "currican" edo "kaza" izenez ezagutzen den, gutxienez 4 cm luzeko pala duten koilaratxoak baino ezin izango dira erabili.

8.3 Pazifikoko karramarroak eta karramarro gorriak harrapatzeko, amu hilak soilik erabiliko dira (eta inoiz ez deskonposizioan daudenak), eta debekatuta dago horien hondarrak ibaiertzetan uztea edo horiek uretara botatzea. Arrantza eguna bukatutakoan, hondar horiek edukiontzietan utzi edo erabili dituenaren etxera eraman beharko dira.

8.4 Oro har, hau debekatzen da:

a) Arrain biziak edo hilak beita moduan erabiltzea.

b) 630/2013 Errege Dekretuak eragindako espezieak ezin dira beita gisa erabili. Espezie horiek Foru Agindu honen I. eranskinean agertzen dira.

c) Beita natural gisa tokian tokiko faunakoak diren intsektu edo beste ornogabeen arrautzak, larbak, pupak, ninfak edo imagoak erabiltzea.

d) "Asticot" deritzon harra eta antzekoak beita natural moduan erabiltzea, bai eta osagai erakargarriak, usainduak eta zaporedunak dauzkaten beita guztiak ere. Era berean, debekatuta dago gazta, haragi eta antzekoen masa nahasiak erabiltzea beita moduan, bai eta urak beitatzea ere arrantzan hasi baino lehen edo arrantzan ari bitartean.

e) Harian lastadun ninfak erabiltzea beita moduan.

8.5 Salbuespenak:

a) Albina, Maroño, Sobron, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan onartzen da arrain hilak erabiltzea beita natural moduan. Kasu guztietan ondoko muga hauek ezartzen dira, ur gezatako espezieen aleak baldin badira:

a.1. Foru agindu honen 1.1. artikulua arabera arrantzatu daitezkeen espezieen zerrendako arrain espezieak izatea.

a.2. Haien neurria foru agindu honetako 4. artikuluan ezarritako gutxieneko neurriaren berdina edo handiagoa izatea.

b) Karramarroa kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatietan, baimenduta dago arrain hilak beita natural moduan erabiltzea, aurreko idatz zatian ezarritako muga berberekin.

c) Langraiz Okako Kirol Agertokian eta Sobrón, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan, onartzen da urak beitatzea gazta, haragi eta antzekoen masa nahasiekin, baina arrantzan ari bitartean bakarrik, eta betiere uretako fauna eta landarediarentzat edo gizakientzat toxikoak ez diren produktuak erabiliz gero.

d) Langraiz Okako Kirol Agertokian baimenduta dago "asticot" izeneko harra edo antzekoak erabiltzea beita natural moduan.

8.6 Zuhertasun printzipioari jarraituz, Sobrongo urtegian debekatuta dago hari txirikordatuzko amu-hariak, estrimer apeuak eta arrain artifizialak erabiltzea, uste baita horien erabilerak helburu duela espezie exotiko inbaditzaile bezala katalogatutako harrapari handiak sustatzea.

9. ARTIKULUA. ARRANTZAN EGITEKO BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK.

9.1 Eusko Jaurlaritzaren Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren urriaren 7ko 216/1997 Dekretuari jarraituz (EHAA, 203 zenbakia, 1997ko urriaren 23koa), hauexek dira Euskal Autonomia Erkidegoan ibai arrantza egiteko beharrezko agiriak:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza baimena.

b) Urteko tasa ordaindu izana egiaztatzen duen agiria.

c) Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte, gidabaimena edo atzerritarren identifikazio zenbakia (AIZ).

9.2.9.1 artikuluan adierazitako agiriez gainera, mugaturiko ibai zatietan amuarrain arrantzan aritzeko eta kontrol eta deuseztatzeko ibai zatietan karramarroak harrapatzeko, beharrezkoa izango da, hurrenez hurren, amuarrain esparruko arrantza baimen egokia edo delako ibai zatian karramarroak kontro 1latu eta deuseztatzeko baimena edukitzea, bai eta hori ordaindu izanaren agiria ere. Baimena pertsonala eta besterenezina izango da. Baimen horrek bakar-bakarrik egun jakin baterako eta amuarrain esparru edo kontrol eta deuseztatzeko ibai zati jakin baterako izango du indarra

10. ARTIKULUA. ARRAIN FAUNA BABESTEA.

10.1 Arauzko 22 zentimetroak ez dituen amuarrain arrunt bat harrapatzen denean, amuarrainari ezin bazaio amua kendu kalte handia egin gabe, arrantza haria moztu eta arraina askatu egingo da.

10.2 Arrainak harrapatzean egiten zaizkien kalteak, ahal den neurrian, ahalik eta txikienak izan daitezen, "amua kentzekoa" erabiltzea gomendatzen da.

10.3 Honako debeku hauek ezartzen dira:

a) Uretan amuarrainen arrabalekuetan sartzea apirilaren 30era arte, berori barne.

b) Edozein baliabide erabilita harriz, egurrez edo beste material batez egindako oztopoak edo hesiak jartzea, edo ubideak edo ur etorriak aldaraztea, arrantza errazteko ala ez errazteko.

c) Ur etorriak murriztu, ubideak aldarazi edo uretako landaretza suntsitzea.

d) Elektrokutatze edo geldiarazteko tresnak, argi iturri artifizialak, lehergailuak eta gai pozoitsuak, lasaigarriak, erakargarriak edo uxagarriak erabiltzea.

e) Atzaparrak, kizkiak, hiruhortzak, krakoak, granpinak, fitorak, arpoiak, xederak, baheak, per-tolak, otarreak, jingak, sareak, eskusareak, tretzak, salabardoak, zurdak, itsatsitako amu-hariak eta antzeko tresnak erabiltzea.

f) Egitura zurrun eta iraunkorrekoak ez diren flotazio aparatuak erabiltzea, hala nola egur sortak, almadiak, oholtzak eta abar.

g) Arrainak eskuz harrapatzea eta arrainen babesleku diren harriak jotzea.

h) Su armez, aire konprimituz edo beste gas batzuez dabilzan armez, uztaz, baleztaz edo antzeko tresnak erabiliz arrantzan egitea.

i) Arabako Lurralde Historikoko ur masa kontinentaletan edozein espezieren aleak sartzea edo askatzea, Arabako Foru Aldundian eskumena duen Sailaren beharrezko baimena eduki gabe.

11. ARTIKULUA. AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUAK

Arabako Lurralde Historikoan 2018/19 denboraldirako ezartzen diren amuarrain arrantzako esparruak, foru agindu honen II. eta III. eranskinetan adierazitakoak dira.

12. ARTIKULUA. KARRAMARRO GORRIA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIAK.

Arabako Lurralde Historikoan 2018/19 denboraldian karamarroak kontrolatu eta deuseztatzeke ezartzen diren ibai zatiak, foru agindu honen II. eta IV. eranskinetan adierazitakoak dira.

13. ARTIKULUA. KIROL AGERTOKIA.

13.1 Ziprinidoen arrantza sustatzeko eta ikasteko, "kirol agertokia" ezartzen da Zadorra ibaian, Langraiz Oka herritik igarotzean. Hona hemen horren mugak:

- Goialdeko muga: "Los Cañales" izeneko oinezkoentzako pasabidearen aurriak.
- Behealdeko muga: Sorribasko presa.
- Luzera: 1,7 km.

13.2 Arabako Foru Aldundiaren Ehiza eta Arrantza Atalean eskatutakoan erabili ahal izango da Ziprinidoen kirol agertokia. Eskaera hori Euskal Herriko Arrantza eta Casting Federazioaren bidez izapidetuko da.

13.3 Kirol agertokia osorik edo zati batean okupatuta dagoen egunak Euskal Herriko Arrantza eta Kasting Federazioaren web orrian (www.fvpyc.org) jakinaraziko dira, ekitaldia egin baino gutxienez bi egun lehenago.

13.4 Kirol agertokian harrapatzen diren ale guztiak, foru agindu honen I. eranskinean zerrendatzen diren espezieenak izan ezik, uretara itzuli egingo dira harrapatu eta berehala edo, "bibak" ontziren bat erabiltzen ari izanez gero, arrantza eguna bukatutakoan.

13.5 630/2013 Errege Dekretuaren (I. eranskina) eraginpeko espezie exotiko inbaditzaileak harrapatzeko, Foru Agindu honen 5. artikuluan zehaztutakoa bete beharko da.

13.6 Arrantzako tresna lagungarriak erabiltzeko, foru agindu honen 20.2.c artikuluan zehaztutakoa bete behar da.

14. ARTIKULUA. DEBEKATUTAKO IBAI ZATIAK.

14.1 Foru Agindu honen II. eranskinean arrantzan egin daitekeen ibai zati deklaratu ez diren ur masa guztiak debekatuta daudela iritziko da eta, beraz, horietan ezin daiteke inolako arrantza jarduerarik egin.

14.3 Debekatuta dago edozein arrantza jarduera sarbide publikoa debekatuta duten lekue-tatik.

14.3 Berariazko baimenik izan ezean, debekaturik dago arrantza egitea ureztatzeke urmael eta ubideetan, bai eta zentral elektrikoetako eta errotetako ubideetan ere, eta, oro har, edozein deribazio ubidetan, iraunkorrak izan zein aldi baterako izan.

14.4 Debekatuta dago kanaberaz arrantzan egitea dike eta presetatik 25 m baino gutxiagora, horien bi alboetan, bai eta horietan finkatutako pasabide eta eskaletan ere. Debeku horrek ez die eragiten ziprinidoen eremuei eta espezie exotiko inbaditzaileak harrapatzeko ibai zatiei, bi gune horietan presaren oinean arrantzatu baitaiteke, baina inoiz ez pasabide edo eskaletatik 10 m baino gutxiagora.

14.5 Bide segurtasunagatik, debekatuta dago kanaberaz arrantzan egitea Ollerietatik Elosurako A-4404 toki errepeidean, Urrunagako urtegiaren gainetik pasatzen den zubiaren bi kareletan.

14.6 Valderejoko eta Gorbeiako parke naturaletan, bertako erabilera eta kudeaketa arautzeko planetan (EKAP) ezarritakoarekin bat etorritz, debekatzen da arrantza haietan zehar igarotzen diren erreka eta ibai zati guztietan. Halaber, debekatzen da arrantzan egitea Guardiako Aintzira Biotopo Babestuan, bai eta Caicedo de Yusoko aintziran ere.

15. ARTIKULUA. MERKATURATZEA.

Debekatuta dago amuarrain arruntak merkaturatzea, lurralde historiko honetako uretan egindako arrantzatik lortuak badira. Era berean, abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 61.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, debekatzen da abenduaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuan jasotako espezie exotiko inbaditzaileen aleak merkaturatzea, Arabako Lurralde Historikoko uretan egindako arrantzatik lortuak badira.

16. ARTIKULUA. AMUARRAIN ESPARRUETAKO ARRANTZA BAIMENAK ETA KARRAMARROA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO BAIMENAK.

16.1 Eskaerak: Amuarrainak arrantzatzeko baimenak eta karramarroa kontrolatu eta deuseztatzeko baimenak Arabako Foru Aldundian eskatuko dira (Probintzia plazako 5. zenbakian dauden bulego teknikoetan, beheko solairuan), edo AFaren egoitza elektronikoaren bidez, horretarako formalizatutako inprimakian eta nahitaezko agiriekin batera. Eskaerak egiteko epeak honako hauek dira:

a) Karramarroa kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatiak. 2018ko martxoaren 5etik 28ra arte, bi egun horiek barne.

b) Amuarrain arrantzako esparruak: 2018ko abendua.

16.2 Zozketa. Amuarrainak arrantzatzeko eta karramarroa kontrolatu eta deuseztatzeko baimenen zozketak Arabako Foru Aldundian egingo dira. Zozketen orduak eta egunak eskaera orrian zehaztuko dira.

16.3 Prezioa. Amuarrainak arrantzatzeko eta karramarroa kontrolatu eta deuseztatzeko baimenen prezio hauek onartzen dira 2018rako:

a) Amuarrain arrantzako esparruak: 9,60 euro ("heriotzadun" arrantzarako baimena) Arrantza esparru baterako heriotza gabeko arrantzarako baimena eskatzekotan, 5,20 euro izango da prezioa.

b) Heriotzarik gabeko (amuarrain) arrantzarako esparruak: 5,20 euro.

c) Karramarro seinaleduna kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatiak: 8,16 euro.

d) Karramarro gorria kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatiak: 3,41 euro.

16.4 Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik arrantza edo kontrola ezin egin daitekeenean baino ez da egongo eskubidea baimenengatik ordaindutakoa berreskuratzeke.

16.5 Egunean amuarrain esparruko edo karramarroa kontrolatu eta deuseztatzeko baimen bat bakarrik eduki daiteke.

16.6 Amuarrain arrantza hilgarriko esparruetarako baimena lortzen duena heriotza gabeko arrantzan aritu ahal izango da esparru horretan, hori baldin bada egun osoan egiten den arrantza modalitate bakarra. Horretarako, arrantzaleak baimena "heriotzarik gabeko arrantza"tzat identifikatzeko eskatuko du hura egiten diotenean.

17. ARTIKULUA. ZOZKETA BIDEZ BAIMENAK BANATZEA.

17.1 Arrantzaleek eskaera bana aurkeztu ahal izango dute bakarrik; gehiago aurkeztuz gero, kanpoan utziko dira.

17.2 Zozketa egin ondoren, ateratzen den zenbakitik aurrera esleituko dira aukera daitezkeen baimenen eguna eta ordua.

17.3 Eskaria nolakoa den eta zenbat baimen dauden banatzeko kontuan harturik, zozketan saridun izan denak baimen bat edo gehiago aukeratu ahal izango ditu. Baimen bat baino gehiago aukeratu ahal bada, horren erabilera baimenok esparruka edo kontrol eta deuseztatzeko ibai zatika banatuko da. Larunbat, igande eta jaiegunetan mugatuta egongo da.

17.4 Baimena pertsonala eta besterenezina da.

17.5 Baimenak telefonoz eman ondoren (zozketan jarritako hurrenkeraren arabera), baimen liberrik geratuz gero, Arabako Foru Aldundiaren bulego teknikoetan (Probintzia plaza 5, beheko solairua) jarriko dira salgai, bidezkotzat jotzen diren mugekin. Libre geratzen diren baimen horiek gaitutako edonoren esku egongo dira, zozketan parte hartu duela nahiz ez.

17.6 Zadorra ibaiko amuarrain esparruan, karramarro seinaleduna kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatian eta Albinako urtegiko karramarro gorria kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatian izan ezik, baimen guztietatik kopuru bat gordeko da arrantza esparruen eta kontrol eta deuseztatzeko ibai zatien inguruko herrietako arrantzaleentzat; baimenak telefonoz emateko aldian arrantzale horiek baimenak ez badituzte eskuratzen, handitu egingo da baimenen poltsa orokorra. Pertsona horientzat erreserbatutako baimen kopurua, ezarritako epearen barruan jaso eta inguruko herrietako arrantzaleek behar bezala eginak diren eskaeren kopuruaren arabera izango da.

17.7 Amuarrain arrantzako esparruen inguruko herrietakotzat hartuko dira ondoko administrazio batzar hauetakoren batean errolatuta dauden arrantzaleak, ziurtagiri bidez hala frogatuz gero:

a) Berganzo esparruko ibaiertzetako arrantzaleak: Berganzo, Ocio, Santa Cruz del Fierro eta Zambrana.

b) Antoñana-Kanpezu esparruko ibaiertzetako arrantzaleak: Antoñana eta Santikurutze Kanpezu.

c) Kuartango esparruko ibaiertzetako arrantzaleak: Aprikano, Etxebarri-Kuartango, Jokano, Katadiano, Sendadiano, Urbina Eza, Uribarri-Kuartango eta Zuhatzu-Kuartango.

17.8 Karramarro seinaleduna kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatien inguruko herrietakotzat hartuko dira ondoko administrazio batzar hauetakoren batean errolatuta dauden arrantzaleak, ziurtagiri bidez hala frogatuz gero:

a) Ega ibai zatiaren ingurukoak: Antoñana, Atauri, Korres eta Santikurutze Kanpezu.

b) Omecillo tarteko ibaiertzetako arrantzaleak: Bachicabo, Caranca, Espejo, Mioma, Villamaderne, Villanañe eta Uribarri Gaubea.

c) Baia tarteko ibaiertzetako arrantzaleak: Anuntzeta, Aprikano, Caicedo Sopena, Etxebarri Kuartango, Hereña, Igaegi, Jokano, Katadiano, Morillas, Pobes, Quintanilla de la Ribera, Rivabellosa, San Miguel, Sendadiano, Subijana Morillas, Urbina Eza, Uribarri Kuartango, Villabezana eta Zuhatzu Kuartango.

17.9 Inguruko herrietako arrantzaleek, beraientzat gordetako baimenak lortu nahi izanez gero, eskaerarekin batera errola ziurtagiria aurkeztu beharko dute, eta arrantza zozketan lehenengo aldiz parte hartzen badute, NANaren fotokopia ere bai.

18. ARTIKULUA. HARRAPAKETA ORRIAK.

18.1 Esparruetan harrapatutako amuarrain arruntaren aleei eta kontrol eta deuseztatzeko ibai zatietan harrapatutako karramarro gorri eta karramarro seinaledunei buruzko datuak, haiek uretatik atera eta berehala idatzi beharko dira baimenarekin batera emandako harrapaketa orrian, eta une orotan otzaran, zakuan, e.a. gordetako harrapakinen kopuruak bat etorri beharko du harrapaketa orri horretan jasotako aleekin.

18.2 Gehienez ere 10 eguneko epean, baimena baliozkotzen denetik aurrera, harrapaketa orriak nahitaez bidali edo entregatu beharko dira, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuan, Eskalmendiko Desinfekzio Zentroan (funtzionamendu ordutegiaren barruan) karramarroa kontrolatu eta deuseztatzeko baimenak badira, edo Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez. Posta ziurtatuz edo aurkeztu direla ziurtatzen duen beste edozein modutan ere aurkeztu ahal izango dira orri horiek.

18.3 Harrapaketa orriak bidaltzea edo entregatzea nahitaezkoa izango da nahiz eta arrantza baimenak edo kontrol eta deuseztatze baimenak ez erabili edo batere harrapaketarik ez izan.

18.4 Harrapaketa orriak entregatzeko eginbeharra ez betetzekotan, zigor espediente egokia irekiko da.

19. ARTIKULUA. ONTZITIK ARRANTZAN EGITEA.

19.1 Baimentzen da ontzitik arrantzan egitea edozein modalitatetan Sobrón, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan, betiere Ebroko Ur Konfederazioak nabigazio eta flotaziorako emandako baimena edukiz gero.

19.2 Honako elementu hauek izango dira ontziak: Ebroko Konfederazio Hidrografikoak holakotzat jo, erantzukizunpeko adierazpen bat eskatu, matrikula eman eta nabigazio eta flotaziorako baimen ofiziala ematen dienak.

19.3 Hortaz, ez zaie ontzi iritziko, eta beraietatik arrantzan egitea debekatuta egongo da, Konfederazio horrek bainuaren osagarritzat jotzen dituen elementuak; horien artean daude ahate edo "tubo float" izenekoak, windsurfeko oholak eta antzeko elementuak, edozein materialez egindako almadiak, koltxonetak, flotagailuak eta pneumatikoak eta abar, merkatuan saltzen direnetakoak nahiz etxean egindakoak direla.

19.4 Ur bazterrean norbait arrantzan dabilenean, debekatuta dago ontzitik arrantzan egitea, urtegiaren ertzetik erdialderantz kontatutako 50 metro zabalean.

19.5 Ur bazterretik arrantzan egitea debekatuta dagoen zonetan, debekatuta dago ontzitik arrantzan egitea, debekatutako ur ertzetik urtegiaren erdialderantz kontatutako 100 metro zabalean.

20. ARTIKULUA. ZEBRA MUSKUILUAREKIN (*Dreissena polymorpha*) LOTURIKO BERRIAZKO NEURRIAK.

20.1 Ikusi da badaudela zebra muskuiluak (*Dreissena polymorpha*) Uribarri Ganboa, Urrunaga eta Sobrongo urtegietan eta Ebro, Santa Engrazia, Undebe eta Zadorra ibaietan, eta gehiago zabaldu ez dadin, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2002ko irailaren 24an emandako ebazpenean zehaztutakoari (EAO, 2002ko azaroaren 12a, 271. zenbakia) eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2007ko maiatzaren 15ean emandako ebazpenean zehaztutakoari jarraituko zaio (EAO, 2007ko ekainaren 19a, 146. zenbakia), arrantzan erabilitako tresnak desinfektatu eta lehortzerakoan batez ere.

20.2 Zebra muskuiluen larbak beste ur batzuetara joan ez daitezen, Sobron, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegietan eta Ebro, Santa Engrazia, Undabe eta Zadorra ibaietan egiten den arrantzak honako kautelazko mugak bete beharko ditu:

- a) Debekatuta dago arrantzaleak uretan sartzea.

b) Debekatuta dago kanaberaz harrapatutako arrainak uretatik ateratzeko elementu lagungarriak erabiltzea, Sobrón, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegieta izan ezik. Horietan arrantzako "grip" delakoa erabil daiteke bakarrik. Hala eginez gero, gomendatzen da tresna hori desinfektatzea, ura ukitu baldin badu.

c) Arabako Foru Aldundiaren alde aurreko baimena beharko da Zadorra ibaiko ziprinidoen kirol agertokian elementu lagungarriak (salabardoak, ezten-hagak eta abar) erabiltzeko. Baimen hori Euskal Herriko Arrantza eta Kasting Federazioak Araban duen Ordezkaritzak eskatuko du, eta horren ardura izango da, baita ere, baimendutako materialak egokiro desinfektatzen direla egiaztatzea.

d) Sare-saskiak arriskudun elementu garrantzitsuak direnez gero zebra muskuiluaren he-dapenaren aldetik, Zadorra ibaiko karramarro seinaleduna kontrolatu eta deuseztatzeko ibai zatirako baimena lortzen duten arrantzaleek Arabako Foru Aldundiak Eskalmendi Abeltzaintza Laborategian duen desinfekziogunera joan beharko dute. Laborategiak egun eta ordu hauetan emango du zerbitzu hori:

– Uztail eta abuztuan: astearte, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan 15:00etik 22:00etara.

– Iraila astearte, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan 15:00etik 21:00etara.

e) Arrantza egin den egun berean desinfektatu beharko dira sare-saskiak eta, horretarako, arrantzaleak aipatutako gunera heldu diren hurrenkera hartuko da kontuan. Instalazioak itxi aurretik ezin izan badira egin desinfekzio guztiak, arrantzarako materialak bertan gordailaturik geratuko dira eta jabeak hurrengo egun baliiodunean berreskuratu ahal izango ditu, instalazioaren lan orduetan.

Eginbehar hori ez betetzekotan, horretarako arrazoirik izan gabe, zehapen espediente egokia irekiko da.

21. ARTIKULUA. EZINDUENTZAKO ARRANTZA LEKUA.

Ezinduentzako lehentasunezko arrantza leku gisa gordetzen da Urrunagako urtegiko zubi handia izenekoa, N-240 errepidean dagoena, A-623 errepidearekiko elkargunearen parean.

22. ARTIKULUA. UNEAN UNEKO NEURRIAK.

Klima, biologia edo beste edozerekin loturiko gorabeherak direla-eta uretako faunan gerta litezkeen kalteei aurrea hartzeko, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak beretzat gordetzen du ahalmena foru agindu honetan araututako edozein puntu aldatu edo garatzeko, baita normalizatzeko egokiesten diren besteak ere.

23. ARTIKULUA. ARAU HAUSTEAK.

Ibai arrantzaren arloan edozein arau hautsiz gero, aplikatuko dira bai 1942ko apirilaren 20ko Legea, ibai arrantzarena, bai apirilaren 13ko 1/1989 Legea, ehiza eta ibaietako arrantza arloko zenbait arau hauste administratiboren kalifikazioa aldatu eta dagozkien zehapenak handitzen dituenak.

I. ERANSKINA

ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN ESPAINIAKO KATALOGOA ARAUTZEN
DUEN 630/2013 ERREGE DEKRETUAREN ERAGINPEAN DAUDEN ETA
ARABAN AURKI DAITEZKEEN ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEAK

ARRAINAK	
IZEN ARRUNTA	IZEN ZIENTIFIKOA
Alburnoa	<i>Alburnus alburnus</i>
Karpa	<i>Karpa</i>
Eskardinoa	<i>Scardinius erythrophthalmus</i>
Ganbusia	<i>Gambusia holbrooki</i>
Lutxoa	<i>Esox lucius</i>
Lutxoperka	<i>Sander lucioperca</i>
Perka amerikarra edo black-bass	<i>Micropterus salmoides</i>
Perka europarra edo arrunta	<i>Perca fluviatilis</i>
Eguzki perka edo eguzki arraina	<i>Lepomis gibbosus</i>
Arrain katu beltza	<i>Ameiurus melas</i>
Errutiloa	<i>Rutilus rutilus</i>
Silurua	<i>Silurus glanis</i>
Amuarraín ostadarra	<i>Oncorhynchus mykiss</i>

OSKOLDUNAK	
IZEN ARRUNTA	IZEN ZIENTIFIKOA
Karramarro gorria	<i>Procambarus clarkii</i>
Pazifikoko karramarroa	<i>Pacifastacus leniusculus</i>

II. ERANSKINA

ARRANTZAN EGIN DAITEKEEN IBAI ZATIAK, ARRO HIDROLOGIKOKA (AH)

1. OMECILLOKO ARRO HIDROLOGIKOA

1.1. AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

1.2. HERIOTZA GABEKO AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

1.3. KARRAMARRO SEINALEDUNA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Omeçillo ibaia: Uribarri Gaubeako zubitik A-2625 errepideko zubiraino (Espejo).
- Tumeçillo ibaia: Carancako errotako zubitik Omeçillo ibaiko bokaleraino, Villanañe herria baino beherago.

1.4. SALMONIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA:

- Tumeçillo ibaia: Angostoko santutegiko presatik Omeçillo ibaiarekiko elkarguneraino.

1.5 ZIPRINIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA:

- Omecillo ibaia: A-2625 errepideko zubitik (Bergonda herria baino gorago) Ebro ibaiko bokaleraino.

1.6 ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Omecillo ibaia: perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu daiteke bakar-bakarrik A-2625 errepideko zubitik (Bergonda herria baino gorago) Ebro ibaiko bokaleraino.

2. BAIAKO ARRO HIDROLOGIKOA**2.1. AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA:** ez dago eskuragarri AH honetan.**2.2. HERIOTZA GABEKO AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUA:**

- Baia ibaia: Marubaiko zubitik (Katadiano) Aprikanoko zubiraino.

2.3. KARRAMARRO SEINALEDUNA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Baia ibaia: Marubaiko zubitik (Katadiano) Rivabellosako zubiraino.

2.4. SALMONIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA:

- Baia ibaia: Aprikanoko zubitik hasi eta Igaegi herritik San Miguel herrira sartzeko zubiraino.

2.5. ZIPRINIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA:

- Baia ibaia: San Miguel herrira sartzeko zubitik Burgos probintziako mugaraino (Igaegi herritik).

2.6. ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Baia ibaia: perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu daiteke da San Miguel herrira sartzeko zubitik (*Igaegitik sartuta*) Burgos probintziako mugaraino bakarrik.

3. ZADORRAKO ARRO HIDROLOGIKOA**3.1. AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA:** ez dago eskuragarri AH honetan.

- Zadorra ibaia (Dura): Uribarri Ganboako urtegiko presako koltxoiaren beheko mugatik Gamarrako zubiraino (N-240). Ez dago baimenduta presako koltxoiaren egituratik bertatik arrantzan egitea.

3.2. HERIOTZA GABEKO AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUA:

- Zadorra ibaia (Dura): Uribarri Ganboako urtegiko presako koltxoiaren beheko mugatik Gamarrako zubiraino (N-240). Ez dago baimenduta presako koltxoiaren egituratik bertatik arrantzan egitea.

3.3. KARRAMARRO SEINALEDUNA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Zadorra ibaia: Uribarri Ganboako urtegiko presako koltxoitik Ihurreko zubiraino.

3.4. KARRAMARRO GORRIA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Albinako urtegia: perimetro osoa.

3.5. SALMONIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREAK:

- Zadorra ibaia: Gamarrako zubitik (N-240) Aztegietako zubiraino.

- Undebe ibaia: Arabako sarreratik, Ubidetik behera, Urrunagako urtegiko bokaleraino.

- Barrundia ibaia: Aiduru edo Ugarte errekaetik elkargunetik (Barriatik gora) Zadorra ibaiko bokaleraino.

- Albina ibaia: Albinako urtegiko presatik Urrunagako urtegiko bokaleraino.

- Ihuda ibaia: lurzati bideko zubitik, Urarte herrian, Burgosko probintziarekiko mugaraino (Trobiñuko Konderrria) eta Trobiñuko Konderriko irteeratik Berantevillako presaraino.

- Zubialde-Zalla ibaia: A-3608 errepideko zubitik (Larrinoan) Zadorrako bokaleraino.

3.6. ZIPRINIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREAK:

- Albinako urtegia: perimetro osoa.

- Ulibarri Ganboako urtegia: perimetro osoa, Urizarko iparraldeko edo kanpoko dike izenekoaren bi alboak barne, arrantza debekatuta duten gunek izan eziz:

- Garaioko eta Landako bainu lekuak eta Uribarri Ganboako hilerriaren ondoko hondartza izan eziz.

- Oreningo uhartearen perimetro osoa.

- Erlojuaren orratzen kontrako norabidean, urtegiaren hegoaldeko senadia eta Urizar baserretik ur gaineko pasabidearen bukaerako muturrerainoko (Garaioko probintzia parkearen beste aldean) ur bazter guztia barnean hartzen dituen ibai zatia.

- Aldaieta klub nautikoa: mendebaldetik ekialderako norabidean, hau guztia barnean hartzen duen ur bazter zatia: ontziak atrakatzeko zementuzko arrapalaren senaditik (UTM koordenatuak: 30T533229.4752532 - Datum ERTS89) klub horretako ur gaineko pantalanaren aurrean dagoen senadiaren bukaeraraino (UTM koordenatuak: 30T533601.4752703 - Datum ERTS89).

- Urrunagako urtegia: perimetro osoa.

- Dulantzi ibaia: Oreitia herriko zubitik Zadorra ibaiarekiko elkarguneraino.

- Ihuda ibaia: Berantevillako presatik Zadorra ibaiarekiko elkarguneraino.

- San Petri erreka: Ollarieta-Gopegi A-3608 errepideko zubitik Urrunaga urtegiko bokaleraino.

- Santa Engrazia ibaia: Urrunagako urtegitik Amarita herrira Erretanatik sartzeko errepideko zubiraino.

- Zadorra ibaia:

- A-3016 errepideko zubitik (Agurainetik Erdoñara) Uribarri Ganboako urtegiko bokaleraino.

- Aztegietako zubitik "Los Cañales" izeneko oinezkoentzako pasabidearen aurrietaraino.

- Sorribasko presatik Ebro ibaiko bokaleraino, Arabatik pasatzen den ibilgu osoan zehar.

3.7. KIROL AGERTOKIA:

- Zadorra ibaia: "Los Cañales" izeneko oinezkoentzako pasabidearen aurrietatik Sorribasko presaraino.

3.8. ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Albina, Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegiak: alburnoa (*Alburnus alburnus*), lutxoa (*Esox lucius*), karpa (*Cyprinus carpio*) eta perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu daitezke haien perimetro guztietan, Uribarri Ganboako urtegiaren zati debekatuetan izan eziz.

- Dulantzi ibaia: alburnoa (*Alburnus alburnus*) eta lutxoa (*Esox lucius*) arrantzatu daitezke Oreitiako zubitik Zadorra ibaiarekiko elkarguneraino.

- Zadorra ibaia: alburnoa (*Alburnus alburnus*), lutxoa (*Esox lucius*), perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) eta amuarrain ostadarra (*Oncorhynchus mykiss*) arrantzatu daitezke Uribarri Ganboako presako koltxotik Ebro ibaiko bokaleraino bakarrik.

Hala ere, Durako arrantza esparruarena den ibai zati horren zatian -Uribarri Ganboako presako koltxoitik N-240 errepideko Gamarrako zubiraino-, eremu horretarako baimena dutenek bakarrik egin dezakete arrantzan.

4. ARAKILGO ARRO HIDROLOGIKOA

- 4.1. AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.
- 4.2. HERIOTZA GABEKO AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.
- 4.3. KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago baliagarri AH honetan.
- 4.4. SALMONIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA:
- Araia edo Zirauntza ibaia: Iduiako auzoko zubitik Leze errekaen elkarguneraino.
- 4.5. ZIPRINIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA: ez dago eskuragarri AH honetan.
- 4.6. ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

5. INGLARESKO ARRO HIDROLOGIKOA

- 5.1. AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA:
- Jugalez ibaia (Bergantzu): Bergantzuko zubitik Ebro ibaiarekiko elkarguneraino.
- 5.2. HERIOTZA GABEKO AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.
- 5.3. KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago baliagarri AH honetan.
- 5.4. SALMONIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA:
- Inglares ibaia: A-2124 eskualde errepideko zubitik, Urizaharreko herrigunearen inguruetan, Berganzoko zubiraino.
- 5.5. ZIPRINIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA: ez dago eskuragarri AH honetan.
- 5.6. ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

6. EGAKO ARRO HIDROLOGIKOA

- 6.1. AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.
- 6.2. HERIOTZA GABEKO AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUA:
- Ega/Berron ibaiak (Antoñana-Kanpezu): Sabando errekaen bokaletik Santikurutze Kanpezuko herrira sartzeko zubiraino (A-132 errepideak eta Oteo eta Haranerantz doan A-2128 errepideak bat egiten duten gunean).
- 6.3. KARRAMARRO SEINALEDUNA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:
- Berron ibaia: A-132 errepideko zubitik, Atauritik behera (Asfaltos Maeztu), Ega ibaiarekiko elkarguneraino.
 - Ega ibaia: Berroneko bokaletik Nafarroarekiko mugaraino.
- 6.4. SALMONIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA:
- Berron ibaia:
 - A-132 errepideko zubitik, Birgaragoiennen, errepide horretako zubiraino, Maeztuko igerilekuetatik behera.
 - Atauriko presatik "Puentelaya" izeneko aurkintzaraino.
 - Antoñanako errotako presatik Sabando ibaiko bokaleraino.

- Ega ibaia:

- Nafarroako Foru Erkidegoan ibili ondoren Araban sartzen denetik Berron ibaiaren elkar-guneraino.

- Antoñana-Kanpezuko esparruaren bukaeratik (Santikurutze Kanpezura sartzeko zubia, A-132 errepideak eta Oteo eta Haranerantz doan A-2128 errepideak bat egiten duten tokian dagoena) Nafarroako mugaraino.

- Izki ibaia: Korrestik Durruma Kanpezura doan A-4124 auzo errepideko zubitik Berron ibaiko bokaleraino.

- Musitu ibaia: Zekuianoko errotatik Berron ibaiaren bokaleraino.

6.5. ZIPRINIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA: ez dago eskuragarri AH honetan.

6.6. ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Ega ibaia: Amuarrain ostadarra (*Oncorhynchus mykiss*) arrantzatu daiteke Antoñana-Kanpezuko esparruaren bukaeratik (Santikurutze Kanpezuko herrira sartzeko zubia, A-132 errepideak eta Oteo eta Haranerantz doan A-2128 errepideak bat egiten duten tokian dagoena) Nafarroako mugaraino.

7. NERBIOI-IBAIZABALGO ARRO HIDROLOGIKOA

7.1. AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

7.2. HERIOTZA GABEKO AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

7.3. KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago baliagarri AH honetan.

7.4. SALMONIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA:

- Altube ibaia: A-2522 errepideko zubitik (Urkillo dermioan) Bizkaiko probintzia mugaraino.

7.5. ZIPRINIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREAK:

- Maroñoko urtegia: perimetro osoa.

- Olarteko urtegia: perimetro osoa.

- Izoria ibaia: Maroñoko urtegiko irteeratik Nerbioi ibaiko bokaleraino.

- Nerbioi Ibaia: Araban duen sarreratik, Saratxotik gora, Bizkaiarekiko mugaraino.

7.6. ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

- Maroñoko urtegia: perimetro osoan arrantzatu daitezke lutxo (*Esox lucius*) eta black-bassa (*Micropterus salmoides*).

8. CADAGUA-IBAIZABALGO ARRO HIDROLOGIKOA

8.1. AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

8.2. HERIOTZA GABEKO AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

8.3. KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago baliagarri AH honetan.

8.4. SALMONIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA:

- Ibaizabal ibaia: A-624 errepideko zubitik Bizkaiarekiko mugaraino.

8.5. ZIPRINIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREAK:

- Artziniega ibaia: Aiaga edo Soxo erreka bokaletik Bizkaiarekiko mugaraino.
- Okondo edo Izalde ibaia: A-624 errepideko zubitik Bizkaiarekiko mugaraino.

8.6. ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

9. DEBAKO ARRO HIDROLOGIKOA

9.1. AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

9.2. HERIOTZA GABEKO AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

9.3. KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago baliagarri AH honetan.

9.4. SALMONIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA:

- Aramaio ibaia: Kuku presatik Gipuzkoarekiko mugaraino.

9.5. ZIPRINIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA: ez dago eskuragarri AH honetan.

9.6. ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago eskuragarri AH honetan.

10. EBROKO ARRO HIDROLOGIKOA

10.1. AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

10.2. HERIOTZA GABEKO AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUA: ez dago eskuragarri AH honetan.

10.3. KARRAMARROAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA: ez dago baliagarri AH honetan.

10.4. SALMONIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA: ez dago eskuragarri AH honetan.

10.5. ZIPRINIDOEN ARRANTZARAKO IBAI ZATI LIBREA:

- Sobrongo urtegia: Araban duen perimetro osoan.
- Ebro ibaia: Araban egiten duen ibilbide osoan.

10.6. ARRAIN EXOTIKO INBADITZAILEAK KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIA:

• Sobrongo urtegia: alburnoa (*Alburnus alburnus*), lutxoa (*Esox lucius*) eta perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu daitezke Araban duen perimetro osoan.

• Ebro ibaia: alburnoa (*Alburnus alburnus*), lutxoa (*Esox lucius*) eta perka amerikarra (*Micropterus salmoides*) arrantzatu daitezke Araban egiten duen ibilbide osoan.

III. ERANSKINA
AMUARRAINEN ARRANTZA ESPARRUA

1. AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUAK.

IZENA	IBAIA	GOTALDEKO MUGA	BEHEALDEKO MUGA	LUZER A (km)	BAIMENAK, EGUNA	ALDI BALIODUNA	EGUN BALIODUNAK	BETIAK	KUPOA
Bergantzu	Jugalez	Bergantzuko zubia	Ebro ibaiarekiko elkargunea	8,0	4	2018/03/18tik 2018/06/30era	al., ol., Ir., ig., jai	Garrangarik gabeko amu bakarra duten artifizialak bakarrik	2

2. HERIOTZA GABEKO AMUARRAIN ARRANTZAKO ESPARRUAK.

IZENA	IBAIA	GOTALDEKO MUGA	BEHEALDEKO MUGA	LUZER A (km)	BAIMENAK, EGUNA	ALDI BALIODUNA	EGUN BALIODUNAK	BETIAK	KUPOA
Dura	Zadorra	Uribarri Ganboa presako koltsoia	Gamarrako zubia (N-240)	8,2	4	2018/03/18tik 2018/06/30era	M, J, S, D, F	Garrangarik gabeko amu bakarra duten artifizialak bakarrik	0
Antoñana-Kanpezu	Berron/Ega	Sabando errekaen bokalea	Santikurutze Kanpezura sartzeko zubia (A-132 eta A-2128 errepideen elkargunea)	6,0	3		al., az., ol., Ir., ig., jai		
Kuartango	Baia	Marubiako zubia (Katadiano)	Aprikanoko zubia	10,8	4	2018/04/14tik 2018/06/13ra			

IV. ERANSKINA
KARRAMARRO SEINALEDUNA ETA GORRIA KONTROLATU ETA DEUSEZTATZEKO IBAI ZATIAK

ESPEZIEA	IBAIA/ URTEGIA	GOIALDEKO MUGA	BEHEALDEKO MUGA	LUZERA (km)	BAIMENAK, EGUNA	BAIMENAK, GUZTIRA	KONTROL ALDIA	KONTROL EGUNAK
Pazifikoko karramarroa	Omeçillo/ Tumecillo	Carançako errotako zubia (Tumecillo) eta Uribarri Gaubeako zubia (Omeçillo)	A-2625 errepideko zubia (Espejo)	13,7	50	2.750		
	Baia	Marubaitko zubia (Katadiano)	Rivabellosako zubia	25,3	55	3.025		
	Berron/Ega	A-132 errepideko zubia, Atauritik behera (Asfaltos de Maetzt)	Nafarroako muga	14,0	50	2.750	2018/07/01etik 2018/09/30era	ar., os., lr., ig., jai
	Zadorra	Uribarri Ganboa presako koltxoia	Ihurteko zubia	11,3	50	2.750		
Karramarro gorria	Albina	Perimetro osoa		8,7	50	2.750		